



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urriaren 31

127. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/ITP-00036. Interpelazioa, genero-indarkeriak prebenitzearen, artatzearen eta desagerraraztearen arloko politika orokorrari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (3. or.).
- 11-25/ITP-00037. Interpelazioa, genero-indarkeriei aurre egiteko politika publikoen eraginkortasunari eta norainokoari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (3. or.).
- 11-24/ITP-00017. Interpelazioa, Nafarroan parte-hartzearen arloko politika orokorrari buruzkoa. Interpelazioa erretiratzea (4. or.).
- 11-24/ITP-00034. Interpelazioa, Eusko Jaurlaritzarekin eta Euskararen Erakunde Publikoa-Office Public de la Langue Basquerekin batera euskara sustatzeko ezarritako politika orokorrari buruzkoa. Interpelazioa erretiratzea (4. or.).
- 11-25/MOC-00146. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hiriarteko gaueko garraioko proiektu pilotu bat bultzatzea, aztertze eta bideragarria izan behar duen litzatekeen gure erkidegorako gaueko garraioaren eredu integral bat. Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 11-25/MOC-00147. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen baita Ablitasko aerodromo militarren inguruan jar ditzan, Defentsa Ministerioaren eskutik, azpiegitura horren jatorri historikoa esklabo-lanean datzala azaltzeko beharrezko seinaleztapen- eta interpretazio-elementuak. Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu du (6. or.).
- 11-25/MOC-00148. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita ahalik eta premia handienaz onets eta bana dezan beharrezkoa den aurrekontu-zuzkidura ziurtatzeko berehala gauzatzen direla 3/2024 Legeak jasotzen diren aurrerabide eta eskubide guztiak. Irene Royo Ortín andreak aurkeztu du (8. or.).
- 11-25/MOC-00150. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “Sexu-esplotazioarako emakume-salerosketaren aurkako Nafarroako Foroa” deitu dezan hilabeteko epean. Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu du (9. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- 11-25/POR-00379. Galdera, Muturreko Pobreziaren eta Giza Eskubideen errelatore berezi Olivier De Schutter-en txostenari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (10. or.).
- 11-25/PES-00377. Galdera, Foruzaingoak Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren salaketari emandako erantzunari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/PES-00378. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan gabapentinoideak errezetatzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/PES-00379. Galdera, A-15 autobia eta Medinaceli lotzeko egiteke dauden bi tarteei buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (12. or.).
- 11-25/PES-00380. Galdera, nekazaritzako plastikoen kudeaketari buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/PES-00381. Galdera, gure erkidegoko dantzako heziketa ofizialari eta dantzako goi-mailako heziketa artistikoari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (13. or.).
- 11-25/PES-00382. Galdera, titulartasun publikoko haur-eskoletan bete gabe gelditu diren eskabideen kopuruari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00383. Galdera, hondakinak zabortegean uztearen gaineko zerga dela-eta foru administrazioak bere gain hartutako kostu osoari edo inpaktu ekonomikoari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/PES-00384. Galdera, Infanta Elena zentroari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (15. or.).
- 11-25/PES-00385. Galdera, 2026an babes ofizialaren kalifikazioa galduko duten Iruñeko 169 etxebizitzetxei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/PES-00386. Galdera, gaixotasun arraroak edo desgaitasun konplexuak dauzkaten pertsonak artatze aldera Gobernuak abian jarritako neurri zehatzei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (17. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-25/PEOP-00001. Deialdia, oposizio bidez betetzeko Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko sistema informatikoetako goi-mailako teknikaria izateko plaza bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa. Izan-gai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda (19. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/ITP-00036. Interpelazioa, genero-indarkeriak prebenitzearen, artatzearen eta desagerraraztearen arloko politika orokorrari buruzkoa

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egindako interpelazioa, genero-indarkeriak prebenitzearen, artatzearen eta desagerraraztearen arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Genero-indarkeria gure gizartean gertatzen den giza eskubideen urraketa nagusietako bat da oraindik ere. Datuek erakusten dute oraindik ere arrakalak daudela indarkeria horien prebentzioaren, arreata integralaren eta desagerraraztearen arloan.

Horregatik, Nafarroako Gobernuari galdetzen zaio genero-indarkeriak prebenitzeko, artatzeko eta desagerrarazteko politika orokorreari buruzko interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2025eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Blanca Isabel Regúlez Álvarez

11-25/ITP-00037. Interpelazioa, genero-indarkeriei aurre egiteko politika publikoen eraginkortasunari eta norainokoari buruzkoa

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egindako interpelazioa, genero-indarkeriei aurre egiteko politika publikoen eraginkortasunari eta norainokoari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Genero-indarkerien aurkako borroka lehentasunezko interes-eremua da politika publikoentzat. Nafarroan neurri eta jarduketa ugari garatzen direnez, egokia da Gobernuak horien eraginkortasunari eta irismenari buruz egiten duen balorazioa ezagutzea, bai eta arlo horretako jarduketek jarraitzea emateko aurreikusten dituen lan-ildoak ere.

Hori dela-eta, genero-indarkerien aurkako borroka arloko politika publikoen eraginkortasunari eta irismenari buruzko interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2025eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Blanca Isabel Regúlez Álvarez

11-24/ITP-00017. Interpelazioa, Nafarroan parte-hartzearen arloko politika orokorrari buruzkoa

INTERPELAZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak Nafarroan parte-hartzearen arloko politika orokorrari buruz egindako interpelazioa erretiratu izana. Interpelazioa 2024ko ekainaren 14ko

86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/ITP-00034. Interpelazioa, Eusko Jaurlaritzarekin eta Euskararen Erakunde Publikoa-Office Public de la Langue Basquerekin batera euskara sustatzeko ezarritako politika orokorrari buruzkoa

INTERPELAZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako interpelazioa erretiratu izana. Interpelazioa, Eusko Jaurlaritzarekin eta Euskararen Erakunde Publikoa-Office Public de la Langue Basquerekin batera euskara sustatzeko ezarritako politika orokor-

rrari buruzkoa, 2024ko abenduaren 13ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00146. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia- tzen baita hiriarteko gaueko garraioko proiektu pilotu bat bultzatzea, az- tertzeke ea bideragarria izanen litzatekeen gure erkidegorako gaueko garraioaren eredu integral bat

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiaitzen baita hiriarteko gaueko garraioko proiektu pilotu bat bultzatzea, aztertzeke ea bideragarria izanen litzatekeen gure erkidegorako gaueko garraioaren eredu integral bat.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Miguel Garrido Solak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Mugikortasuna oinarrizko eskubidea da, hezkuntza, enplegua, osasuna, kultura edo aisialdirako sarbidea baldintzatzen dituena. Nafarroan, aniztasun geografiko handia baitu ezaugarri, gizarte- eta lurralde-kohesiorako funtsezko elementua da mugikortasun publiko eta jasagarria bermatzea. Hala ere, Nafarroako hiriarteko garraioak muga nabarmenak ditu oraindik ere. Horietako bat (eta horregatik aurkezten dugu mozio hau) gaueko ordutegietan zerbitzurik ez egotea da.

Gaueko garraiorako alternatibarik ez izatea eragozpen handia da lan-ordutegiak edo ordutegi akademikoak gauez edo txandaka dituzten pertsonen lan-bizitza eta eguneroko joan-etorriak bateragarri egiteko, ibilgailu pribaturik ez duten pertsonen autonomiarako (bereziki, gazteen autonomiarako), eta kultura- edo jai-jardueretan parte hartzeke.

Gabezia horren berehalako ondorioa da ibilgailu pribatuarekiko mendekotasuna; ondorioz, emisio kutsatzaileak areagotu egiten dira, bide jakin batzuetan pilaketak sortzen dira eta istripuak izateko arriskua dago, batez ere asteburuetan eta gaueko aisialdiko testuinguruetan.

Nafarroa, trantsizio ekologikoarekin, despopulazioaren aurkako borrokarekin eta bide-segurtasunarekin konprometituta dagoenez, ezin da gogoeta horretatik kanpo geratu. Nafarroako Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiak, bai eta 2030 Agendaren eta Garapen Jasangarrirako Estrategiaren esparruan hartutako konpromisoek ere, garraio publikoko sistema efizientea, inklusiboa eta ingurumenaren aldetik arduratsua indartzeko beharra dagoela erakusten dute. Ildo horretan, hiriarteko gaueko zerbitzuak pixkanaka hedatzea helburu horiekin koherentea den neurria da, mugikortasun seguruago, ekitatiboago eta jasangarriago baterantz aurrera egitea ahalbidetuko lukeena.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Gobernuak hiriarteko gaueko garraioaren proiektu pilotu bat bultzatzea proposatzen da, benetako eskaria, kostu operatiboak eta finantzaketa- eta kudeaketa-eredu posibleak aztertu ahal izateko, toki-entitateen inplikazioarekin.

Horretarako, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiaitzen du hiriarteko gaueko garraioaren proiektu pilotu bat bultzatzea, gure erkidegorako gaueko garraioaren eredu integral baten bideragarritasuna aztertu ahal izateko.

Iruñean, 2025eko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido

11-25/MOC-00147. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen baita Ablitasko aerodromo militarren inguruan jarritzan, Defentsa Ministerioaren eskutik, azpiegitura horren jatorri historikoa esklabo-lanean datzala azaltzeko beharrezko seinaleztapen- eta interpretazio-elementuak

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen baita Ablitasko aerodromo militarren inguruan jarritzan, Defentsa Ministerioaren eskutik, azpiegitura horren jatorri historikoa esklabo-lanean datzala azaltzeko beharrezko seinaleztapen- eta interpretazio-elementuak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Batzordean egin dadila eskatzen dugu.

Zioen azalpena

Gerra hasi ondoren frankismoak erabilitako errepresio- eta umiliazio-moduetako bat obra publikoak eraikitzeke presoen bortxazko lanak erabiltzea izan zen. Galtzaileek beraiek dinamitatutakoa berreraikiko zuten, aberria berreraikiko zuten. Espainiako Estatuaren kasuan, oposiziogileen lan-erabilera errepresioan ematen den aldaketa batekin batera gertatzen da, eta aldaketa horrek konbinatu egiten ditu dozenaka mila aurkari politikoren ezabatze fisikoa batetik, eta gizartearen beste zati zabal baten

erabilera ekonomikoa eta ideologikoki menderatzeko ahalegina bestetik. Alde batetik, gatazkaren galtzaileak zigortzeko, ordaintzeko edo umiliatzeko modu gisa balio zuen; bestetik, izaera hezitzailea zuen, eta, horren bidez, Espainia Berrian garaituek izango zuten lekua irakasten zen, hau da, urte asko iraunen zuen berreziketa ideologiko eta politikoa.

Frankismoak unibertso kontzentratzaile bat sortu zuen, ehun kontzentrazio-esparrutik gora eta ehunka lan-esparru egonkorrekin. Hasiera batean, armadako beste kidego batzuei atxikitako Langileen Batailoietan antolatu ziren, eta 1940tik aurrera, Soldadu Langileen Diziiplina Batailoi izatera igaro ziren.

Miseria erabatekoaren eguneroko administrazioa, kalkulatu eta arrazionala ekarri zuten, eta garrantzitsua da erregimenak zeukan sumisio- eta izu-estrategiaren barruan kokatzea. Estrategia horren bidez, luzaroan geldiarazi egin zen biztanleriaren geruza zabalek erantzuteko zuten edozein ahalmen.

Nafarroan, frankismoaren 15.000 esklabo inguru aritu ziren lanean, are gehiago Zigorrek Lanagatik Berrerosteko Sistemari sartuta zeuden pertsonak kontuan hartzen badira. Lan horiek Nafarroako hainbat lekutan egin ziren, batez ere gotorlekuak, errepideak eta trenbideak eraikitzen.

Gure erkidegoan eskulan esklaboa erabili zen azpiegitura horietako bat Ablitaseko aerodromo militarra izan zen. Aerodromo hori helburu militar argi batekin eraiki zuten Gerra Zibilean, eta, zehazkiago, Ebroko guduan. Ablitas udalerrian dago, udalerririk horretatik Tuterara joateko errepidearen ekialdean, errepidearen ondo-ondoan.

Balizatutako lursail naturalez osatuta dago, eta 114 hektarea hartzen ditu. Aireko III. Eskualdearen eta Aireko Garraio Agintearen mende dago, eta bertan Aireko Armadaren destakamendu iraunkor bat dago.

Azpiegitura hori Memoriaren Espaziotzat jotzen da Nafarroako Memoriaren Institutuaren Memoria-guneak Zabaltzeko Sarean. Proiektu horrek memoria herritarrengana hurbildu nahi du, begirada kritiko ezagutzera emanez 1936ko kolpe militarrean

matxinatuek erabilitako indarkeriari buruz hitz egi-
ten diguten Nafarroako lekuak eta espazioak.

Aireko eta Espazioko Armadak berak adieraz-
ten duen bezala, Ablitaseko aerodromo militarra-
ren misio nagusia garraio-hegazkinetako tripula-
zioak entrenatzea da. Ablitaseko aerodromo
militarrean parakaidisten jaurtiketak egiten dira
(irekitze automatiko eta eskuzko irekiera modality-
teetan), SATBren jaurtiketak (Standard Airdrop
Training Bundle), hurbiltze-maniobra taktikoak,
borroka-deskargak (COL-Combat Off Load) eta
ahalegin handieneko harguneak.

Gaur egun, Memoria-toki gisa katalogatutako
lekuek (Memoria-guneen sareak baino babes han-
diagoko kategoria bat), Nafarroako Memoria Histori-
koaren Tokiei buruzko abenduaren 26ko 29/2018
Foru Legearen 15. artikulua jasotzen duen bezala,
han gertatutakoa seinaleztatzeko eta interpretatzeko
behar diren elementuak dituzte. Ez da gauza bera
gertatzen memoria-guneekin, horiek ez baitituzte
seinaleztapen- eta interpretazio-elementu horiek.

Dena den, 1936ko kolpe militarren ondorioz
eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafa-
rroako herritarrei errekonozimendua eta ordain
morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru
Legearen 17. artikuluan hau adierazten da:

Nafarroako Gobernuak frankismoaren esklabo-
en lanaren bitartez eginiko obra guztiak seinalatu-
ko ditu. Seinale horiek honako hauek jasoko dituz-
te: pertsona horien bizi-baldintzak, esklaboen
kopurua eta egoera horiek publikoki ezagutzera
emateko garrantzitsuak diren datu guztiak.

Beraz, ulertzen da leku memorialista hori jada
seinaleztatuta egon beharko litzatekeela aipatuta-
ko foru legearen arabera.

Ablitaseko aerodromo militarren kasuan, bere-
ziki kontraesankorra da, azpiegitura publikoa izanik,
inolako seinaleztapen- eta interpretazio-elementuren
bidez ez gogoratzea esklabo-lanean duela jatorri
historikoa.

Erabaki-proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Memoria-
ren Institutua premiatzen du Ablitasko aerodromo
militarraren inguruan jar ditzan, Defentsa Ministe-
rioaren eskutik, azpiegitura horren jatorri historikoa
esklabo-lanean datzala azaltzeko beharrezko sei-
naleztapen- eta interpretazio-elementuak.

Iruñean, 2025eko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/MOC-00148. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita ahalik eta premia handienaz onets eta bana dezan beharrezkoa den aurrekontu-zuzkidura ziurtatzeko berehala gauzatzen direla 3/2024 Legeak jasotzen diren aurrerabide eta eskubide guztiak

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita ahalik eta premia handienaz onets eta bana dezan beharrezkoa den aurrekontu-zuzkidura ziurtatzeko berehala gauzatzen direla 3/2024 Legeak jasotzen diren aurrerabide eta eskubide guztiak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioari atxikitako Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau sar dadin eskatzen du Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin:

Zioen azalpena

Alboko esklerosi amiotrofikoa eta konplexutasun handiko beste gaixotasun edo prozesu itzulezin batzuk dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko lege-proposamena aho batez onartu zen Diputatuen Kongresuan eta Senatuan, 2024ko urriaren 10ean eta 23an egindako osoko bilkuretan, hurrenez hurren.

Urriaren 31ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 3/2024 Legea, eta haren xedea da «gizartearen eta, bereziki, administrazio publiko eskudunen konpromisoa islatzen duen esparru juridiko bat ezartzea, haren aplikazio-eremuan sartzen

diren pertsonen eta haien familiei tratu duina, errespetuzkoa eta egokia bermatzeko, bereziki kontuan hartuta biziraupen-aldi laburrak AEAREN eta antzeko beste gaixotasun batzuen kasuan».

Espainiako gizarte osoak oso erreakzio positiboa izan zuen 3/2024 Legeari dagokionez, batez ere pazienteen ordezkarien ingurunean. Era berean, oro har, Espainiako Gobernuak beharrezko aurrekontu-zuzkidura bermatzeko beharra planteatu zen, sine qua non baldintza gisa, proposatutako aurrerapenak gauzatu ahal izateko. Ildo horretan, eta Luzón Fundazioak egindako eta iazko urrian argitaratutako AEAREN kostuen azterketa Espainiako familientzat azterlanaren arabera, urteko kostuek, "gaixoen familiek gaur egun beren gain hartzen dituzten zuzeneko kostuak bakarrik" kontuan hartuta, "184 milioi eurotik 230 milioi eurora bitartekoak" dira, eta "finantzaketa espezifikoak" behar dute.

Espainiako Gobernuak ez du ekitaldi honetarako Estatuko Aurrekontu Orokorren proposamenik aurkeztu, eta ez ditu beharrezko aurrekontu-partidak gaitu 2023tik luzatutako kontuen testuinguruan.

Hori dela-eta, honako erabaki hau hartzea proposatzen diogu Osoko Bilkurari:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du ahalik eta lasterren onar eta bana dezan 3/2024 Legean jasotako aurrerapen eta eskubide guztiak berehala gauzatzen direla ziurtatzeko behar den aurrekontu-zuzkidura, atzeragonezko izaerarekin aipatutako araua indarrean jartzen denetik, eta Espainia osoan ekitate-baldintzetan eta irisgarri egongo direla ukitutako guztientzat.

2. Nafarroako Parlamentuak bere babes eta hurbiltasun osoa erakutsi nahi die AEAREN gaixoei, bai eta haien familiei, osasun-profesionalei eta zaintzaileei ere, gaixotasun horri gogor, duintasunez eta itxaropenez aurre egiten baitiote egunero.

Iruñean, 2025eko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortín

11-25/MOC-00150. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita “Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketaren aurkako Nafarroako Foroa” deitu dezan hilabeteko epean

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketaren aurkako Nafarroako Foroa” deitu dezan hilabeteko epean.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Lehendakaritza eta Berdintasuneko Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Prostituzioa eta salerosketa esklabotza eta sexu-etxekotze arazo bat dira, eta giza eskubideen urraketa arazo baten erroa jo behar dugu.

Ezin da onartu ezein emakumeren, ezein gizakiren gorputza erosi ahal izatea, eta hori esklabotzaraino egitea.

Nafarroak ere jasaten du salerosketaren drama, eta, horregatik, salerosketaren eta prostituzioaren aurka borrokatzeko bere tresna propioa sortzea onartu zuen: “Sexu-esplotazio helburu duen emakumeen salerosketaren aurkako Nafarroako Foroa”. 2011n eratu zen, Nafarroako testuinguruan, jardura erregularra du eta 2016an jarduteko protokolo bat sortu zuen.

Foro hori ez da bildu COVID-19aren pandemiaren geroztik.

Mozioa:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foro horren deialdia egin dezan hilabeteko epean, bere jarduerari berriro ekin diezaion, salerosketaren eta prostituzioaren aurkako borrokaren helburua betetze aldera.

Nafarroan, 2025eko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00379. Galdera, Muturreko Pobreziaren eta Giza Eskubideen errelatore berezi Olivier De Schutter-en txostenari buruzkoa

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, Muturreko Pobreziaren eta Giza Eskubideen errelatore berezi Olivier De Schutter-en txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Muturreko Pobreziaren eta Giza Eskubideen errelatore berezi Olivier De Schutter-en txostenak gizarte-babesaren etorkizuna aztertzen du, munduko erregio guztietako eskuin muturreko populismoaren gorakadaren testuinguruan.

Zer iritzi diozu txosten horri, eta zer neurritan aplikatuko dira bere gomendioak Nafarroako gizarte-politikan?

Iruñean, 2025eko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

11-25/PES-00377. Galdera, Foruzaingoak Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren salaketari emandako erantzunari buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, Foruzaingoak Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren salaketari emandako erantzunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Solak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

X sare sozialeko @behatokia kontuaren argitalpen bati esker jakin dugu Foruzaingoak zer erantzun zion Hizkuntz Eskubideen Behatokiak Euskararen Telefonoan erregistratutako kexa bati, haren sare sozialei buruzkoa zena, eta zeinetan exijitzen baitzen euskaraz eginiko kexa gaztelaniaz ere egin zedila, “ulertu eta aditu ahal izateko”, esanez “ulergaitza” zela Nafarroako bi hizkuntza ofizialak erabili ez izana.

Gure talde parlamentarioan uste dugu erantzun horrek gure erkidegoko hizkuntza-eskubideak urratzen dituela, Nafarroan bi hizkuntza ofizialak erabili beharra inposatzen saiatzen baita; ziur gaude, gainera, eskakizun hori ez dela egiten komunikazioak gaztelaniaz bakarrik egiten direnean. Beraz, hizkuntza-eskubideak urratzeaz gain, gure ustez, euskararen eta euskaldunen aurkako zuzeneko diskriminazioa gertatzen da.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dugu:

Zein da Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioa Foruzaingoak Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren salaketaren aurrean emandako komunikazioari buruz eta zer egingen du horren ondorioz?

Iruñean, 2025eko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-25/PES-00378. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan gabapentinoideak errezetatzeari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan gabapentinoideak errezetatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan.

NOZ-Osasunbideak 2020an gabapentinoideen (Lyrica...) kontsumoari buruz egindako azterlan batek ondorioztatu zuen aholkatutakoaz bestelako erabilera eman ohi zaiola eta erabilera areagotu egin dela azken urteotan; txostenak hainbat neurri proposatzen zituen gabapentinoideei erabilera zuzena emateko preskripzio egokia egin dadin, eta despreskripzio-estrategia taxutzearen aldeko apustua ere egiten zuen.

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

Gabapentinoideen (Lyrica...) preskripzioak zer bilakaera izan du urtez urte NOZ-Osasunbidean, azterketa egin zen urtetik (2020) gaur arte, bai oinarrizko osasun-laguntzan, bai espezializatuan?

Zer kostu ekonomiko izan du urtez urte gabapentinoideen (Lyrica...) erabilerak 2020tik gaur

arte, bai oinarrizko osasun-laguntzan, bai espezializatuan?

Gabapentinoideak ez dira eraginkorrek fibromialgia, migraina, lunbalgia, dardara esentziala, ebakuntza osteko mina eta menopausia osteko beroaldiak tratatzeko, eta, beraz, ez da gomendatzen horiek erabiltzea. Nola kontrolatzen da NOZ-Osasunbideak aholkatutako preskripzioa, eta gabapentinoideak (Lyrica...) aholkatutako erabilerarako ez erabiltzeagatik jakinarazpenik egin al zaie profesionali edo diziplina-espedienterik abiarazi al da? Medikuntzako zenbat profesionali egin zaio halakorik urte bakoitzean?

Zenbat pertsonak parte hartu dute gabapentinoideak (Lyrica...) despreskribatzeko eta desohitzeko prozesuetan Nafarroan 2022tik?

Bidaiderik gabeko haur eta nerabe migratzaileen artean, gizarte-erakundeek gabapentinoideen (Lyrica...) kontsumo handia detektatu dute. Taxutu al da programarik pertsona horiek horien kontsumotik (adikzioa) desohitzeko?

Iruñean, 2025eko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

11-25/PES-00379. Galdera, A-15 autobia eta Medinaceli lotzeko egiteke dauden bi tarteei buruzkoa

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galdera, A-15 autobia eta Medinaceli lotzeko egiteke dauden bi tarteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zertan dira A-15a eta Medinaceli lotzeko egiteke dauden Nafarroako bi tartearak?

Zer epe aurreikusten dituzue proiektua gauzatzeko?

Iruñean, 2025eko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

11-25/PES-00380. Galdera, nekazaritzako plastikoen kudeaketari buruzkoa*OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, nekazaritzako plastikoen kudeaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Oihan Mendo Goñik, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako landa-ingurunean ohikoa da plastiko mota desberdinak erabiltzea piperren, zainzurien eta beste produktu batzuen ekoizpenean. Plastiko

horien bizitza baliagarria amaitu ondoren, nekazaritza-lurretatik kendu behar dira. Lehen, Nafarroako erdialdean, gaikako bilketako eta tratamenduko esperientzia bat izan zen RINAPLAS enpresan, Izarbeibarko Mankomunitatearen lidergoan.

Ondoren, Chipala enpresara edo hondakinak kudeatzeko zentroetara eramaten hasi zen, hala nola "el Culebrete" enpresara, non nekazaritzako plastiko horiek biltzen zituzten. Gaur egun ez dago argi hondakin horren azken destinoa zein izan behar den, zirkulartasun-ikuspegia kontuan hartuta. Honetara ezkerro, gure nekazari batzuei ukatu egin zaie beren hondakin plastikoak "el Culebretera" eramateko aukera, arazo horretarako alternatiba edo konponbide argi eta egokirik izan gabe.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

Nafarroan zer aukera dago nekazaritzako plastikoak biltegitatzeko eta birziklatzeko?

Zer neurri espezifiko ezartzea aurreikusten du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak nekazaritzako plastikoak behar bezala birziklatzeko?

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

11-25/PES-00381. Galdera, gure erkidegoko dantzako heziketa ofizialari eta dantzako goi-mailako heziketa artistikoari buruzkoa*MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Gure erkidegoko dantzako heziketa ofizialari eta dantzako goi-mailako heziketa artistikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuaren Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno jaunari, idatziz erantzun diezaion:

2021-2022 ikasturteetik aitzina, LOMLOE onetsi zenean, dantzako goi-mailako tituluari buruzko aldaketak sartu ziren indarrean (kasuko espezialitatearekin). Jasota geratu da:

dantza-ikasketak gainditu dituztenek Dantzako Goi-mailako Arte Ikasketetako Graduak titulazioa lortuko dutela (kasuko espezialitatean), zeina, graduak unibertsitate-titulazioaren baliokidea izanzen baita ondorio guztietarako.

Aplikatu beharreko araudiak unibertsitateko gradu-titulua edukitzea eskatzen badu, Dantzako Goi-mailako Arte Ikasketetako Graduak titulazioa duenak baldintza hori betetzen duela ulertuko da.

Bestalde, joan den maiatzaren 22an, Diputatuen Kongresuak behin betikoz onetsi zuen Arte Ikasketen Legea, ikasketa horiek lehen aldiz arautzen dituena. Lege horrek Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko goi-mailako arte ikasketak homologatzen ditu, eta unibertsitate-ikasketekin parekatu; arte ikasketa profesionalak, berriz, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalarekin homologatzen ditu, hau da, Lanbide Heziketako sistema berriarekin, eta, era berean, kompetentzia horiek aitortzeko eta egiaztatzeko aukera ematen die sektoreko langileei.

Nafarroan, ordea, ez dugu dantzako goi-mailako prestakuntza artistikoa gaitzen duen ikastetxerik, ez eta prestakuntza ofizialak gaitu ditzakeen dantzako prestakuntza-zentrorik ere.

Departamentuak ba al du asmorik Nafarroan dantzako prestakuntza ofizialak sartzeko eta gure erkidegoan dantzako goi-mailako prestakuntza artistikoa gaitzeko?

Iruñean, 2025eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-25/PES-00382. Galdera, titulartasun publikoko haur-eskoletan bete gabe gelditu diren eskabideen kopuruari buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, titulartasun publikoko haur-eskoletan bete gabe gelditu diren eskabideen kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuaren Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno jaunari, idatziz erantzun diezaion:

Titulartasun publikoko haur-eskoletan (udalenak eta gobernuarenak) zenbat plaza-eskaera geratu dira bete gabe 25-26 ikasturtean eta, beraz, eskatu behar dute plaza haur-eskola pribatuetan?

Iruñean, 2025eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-25/PES-00383. Galdera, hondakinak zabortegian uztearen gaineko zerga dela-eta foru administrazioak bere gain hartutako kostu osoari edo inpaktu ekonomikoari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, hondakinak zabortegian uztearen gaineko zerga dela-eta foru administrazioak bere gain hartutako kostu osoari edo inpaktu ekonomikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroan hondakinen isurpenaren gaineko zerga bat dago. 14/2018 Foru Legearen bidez ezarritako zerga horren helburua da hondakinak hondakindegietan ezabatzea eta erraustea sustatzeari uztea. Hori dela-eta, honako hau galdetzen dugu:

Foru Administrazioak, Iruñerriko Mankomunitateak edota entitate kudeatzaileek zer kostu edo inpaktu ekonomiko hartu dute guztira beren gain hondakinak zabortegietan uztearen gaineko zerga (14/2018 Foru Legea) ordaintzeagatik, gaur egun ezabatzen den eta Iruñerriko Ingurumen Zentroan tratatu eta kudeatu beharko litzatekeen hondakin-frakzioa dela-eta?

Zein da 2023ko, 2024ko eta 2025eko kostu zehakaturia eta zein da 2026rako aurreikuspena?

Iruñean, 2025eko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-25/PES-00384. Galdera, Infanta Elena zentroari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Infanta Elena zentroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Cordovillan (Galar) dagoen Centro Infanta Elena itunpeko zentro publikoa funtsezko baliabidea da Nafarroako Foru Komunitateko desgaitasunaren arretarako sare publikoaren barruan. Nafarroako Gobernuaren fitxa ofizialaren arabera, zentroak 70 egoitza-plaza eta larrialdietako plaza bat ditu, eta entitate pribatu batekin egindako itun bidez kudeatzen da.

Azken urteotan, erabiltzaileek, familiartekoez, profesionalak eta Nafarroako Arartekoaren berak hainbat salaketa eta kexa aurkeztu dituzte, zalan-tzan jartzen dutenak giza baliabideak eta baliabide materialak aski ote diren, bai eta instalazioen kalitatea eta instalazioak egoiliarren behar espezifikoetarako egokiak ote diren ere. Ohartarazpen horien arabera, gabeziak egonen liriateke ekipamenduaren zuzkiduran eta mantentze-lanetan, geletako klimatizazioan eta erosotasunean eta oinarritzko zerbitzu terapeutikoen jarraitutasunean.

Bereziki kaltebera den kolektibo baten arreta-premien eta egitura- edo langile-gabezia posibleen arteko kontrasteak erabat justifikatzen du esku-hartze parlamentario hau. Nafarroako Gobernuaren betekizun saihestezina da ohe eta komun egokituak behar bezala hornitzea, baldintza termiko eroso eta seguruak izatea, fisioterapiako, terapia okupazionalako eta logopediako baliabideak izatea eta zerbitzuaren kalitatea etengabe gainbegiratzea, artatuta pertsonen eskubideak eta ongizatea bermatzeko.

Beraz, idatzizko galdera hauek egiten ditugu:

1. Zein da Cordovillako (Galar) Infanta Elena Zentroaren instalazioen egungo egoera, gelak,

oheak eta komunak erabiltzaileen beharretara egokitzeari dagokionez, batez ere mugikortasun murriztua duten edo laguntza-premia handiak dituzten pertsonen beharretara egokitzeari dagokionez?

2. Zein da Infanta Elena Zentroarekin egoitza-zerbitzuak eta eguneko arreta emateko indarrean dagoen kontratuaren edo itunaren urteko zenbateko osoa, eta zer zenbateko bideratzen dira berariaz langileentzat, instalazioen mantentze-lanetarako eta programa terapeutikoetarako?

3. Fisioterapiako, terapia okupazionalako, logopediako, erizaintzako, gizarte-laneko eta zuzeneko arretako zenbat profesional ditu gaur egun Elena Infanta Zentroak, eta zein da erabiltzaile bakoitzeko langile-ratioa?

4. Eskubide Sozialetako Departamentuak zer ikuskapen, auditoria edo kontrol egin ditu Elena Infanta Zentroan 2020tik, eta zer gabezia edo gomendio detektatu dira irisgarritasunaren, klimatizazioaren, ekipamenduaren edo arreta terapeutikoren arloan?

5. Fisioterapiako, terapia okupazionalako eta logopediako zer zerbitzu ematen dira gaur egun Infanta Elena zentroan, zer maiztasunekin eta zenbat profesionalekin, eta terapia horien murrizketarik edo etenik gertatu al da azken bi urteetan?

6. Zer inbertsio edo jarduketa egin dira Elena Infanta Zentroan 2020tik 2025era bitarte, mantentze-lanak, erreformak edo hobekuntzak egiteko, eta zein daude aurreikusita epe laburrera?

7. Zer kalitate- eta gogobetetze-adierazle erabiltzen ditu Nafarroako Gobernuak Elena Infanta Zentroan emandako arreta ebaluatzeko, eta zein dira eskura dauden azken emaitzak?

Iruñean, 2025eko urriaren 22an

Foru parlamentaria: M.^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/PES-00385. Galdera, 2026an babes ofizialaren kalifikazioa galduko duten Iruñeko 169 etxebizitzetarako buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, 2026an babes ofizialaren kalifikazioa galduko duten Iruñeko 169 etxebizitzetarako buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen dena-

ren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

2025eko urtarilean, nik aurkeztutako informazio-eskari bati erantzunez, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak adierazi zuen, Iruñean bakarrik, 169 etxebizitzak galduko dutela babes ofizialeko kalifikazioa 2026an.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

Zein da 169 etxebizitza horien kokapena, eman daitekeen helbiderik zehatzena?

169 etxebizitza horietatik, zenbat eta zeintzuk dira alokairu-araubidekoak eta zenbat eta zeintzuk dira erosketa-araubidekoak?

Iruñean, 2025eko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-25/PES-00386. Galdera, gaixotasun arraroak edo desgaitasun konplexuak dauzkaten pertsonak artatze aldera Gobernuak abian jarritako neurri zehatzei buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, gaixotasun arraroak edo desgaitasun konplexuak dauzkaten pertsonak artatze aldera Gobernuak abian jarritako neurri zehatzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Gaixotasun arraroak edo desgaitasun konplexuak dituzten pertsonak kolektibo bereziki kaltebera dira, arreta integrala, jarraitua eta koordinatua behar dutenak osasun- eta gizarte-sistemako maila guztietan.

Azken urteotan, Nafarroako Gobernuak kolektibo horren arreta hobetzeko hainbat plan eta estrategia iragarri ditu, hala nola koordinazio soziosanitarioko programak, etxeko arreta indartzea edo erreferentziazko unitateak sortzea. Hala ere, gabezia handiak daude oraindik giza baliabide espezializatuen horniduran, errehabilitazioko, logopediako eta fisioterapiako terapietarako sarbidean, laguntza-produktuen edo funtsezko tratamendu ez-farmakologikoen estaldura eraginkorrean.

Horretaz gain, familiek ez dute etengabeko laguntzarik eta jarraipenik, askotan beren gain hartzen baitute zaintzaren zama nagusia, exijentzia handiko eta erakundeen babes eskaseko baldintzetan.

Hori dela-eta, honako galdera idatzi hau egiten dut:

Gobernuak zer ekintza zehatz jarri du abian gaixotasun arraroak edo desgaitasun konplexuak dituzten pertsonen arreta emateko, egiaz gauzatu ez diren iragarkietatik eta planetatik harago?

Iruñean, 2025eko urriaren 23an

Foru parlamentaria: M.^a Teresa Nosti Izquierdo

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**11-25/PEOP-00001. Deialdia, oposizio bidez betetzeko Nafarroako Parla-
mentuaren zerbitzupeko sistema informatikoetako goi-mailako tekni-
karia izateko plaza bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa**

Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda

114/2025 Ebazpena, urriaren 30ekoa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarena, zeinaren bidez onesten baita aipatu prozeduran onartuak nahiz baztertuak izan diren izangaien behin-behineko zerrenda.

2025eko urriaren 2ko 197. NAO n argitaratu zen Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko sis-

tema informatikoetako goi-mailako teknikaria izateko plaza bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio bidez betetzeko deialdia, eta haren 5. oinarrian ezarritakoarekin bat, honako hau EBAZTEN DUT:

1. Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda hau onestea:

1.1) IZANGAI ONARTUAK:

Izen-abizenak	Desgaitasuna du	Baliabideak egokitzea eskatu du
Agurruza Mutuberia, Maria Luz		
Arce Guillen, Jose Maria		
Arrondo Martinez, Luis Miguel	BAI	EZ
Blanco Anes, José Manuel		
Casado Ibarrola, Fernando Jesús		
Hernández Rabal, Ana Isabel	BAI	EZ
Izkue Mendi, Edurne		
Latasa Echaniz, Félix		
Leal García, Eduardo		
Lezaun Echaury, Iosu Eder		
Liaño Liaño, Pedro		
Macua Sádaba, Carlos Ezequiel		
Martín Orbegozo, Aitor		
Mutilva Contreras, Maria Teresa		
Oscos Asiain, Aitziber	BAI	EZ
Saralegui Díaz, Alejandro		
Sola Núñez, Iñigo		
Solis Alonso, Maria Cristina		
Ugalde Mesanza, Andoni		
Ugalde Ojer, Javier Ignacio		
Vázquez Arteta, Asier		
Ventoso Olmo, Igor		

1.2) IZANGAI BAZTERTUAK:

Izen-abizenak	Desgaitasuna du	Baliabideak egokitzea eskatu du	Baztertze arrazoia
Aguirre Cascallana, Gorka			(1)
Berrozpe Garcia, Daniel			(2)
Justel Calvo, Rafael			(3)

(1) Ez du aurkeztu eskakizun gisa exijitutako titulazio ofizialaren kopia, deialdiaren 3.5 oinarrian eskatzen dena.

(2) Ez ditu ordaindu azterketa-eskubideak (deialdiaren 3.8 oinarria).

(3) Ez du aurkeztu deialdian parte hartzeko eskabidea, I. eranskineko ereduaren arabera, deialdiaren 3.2 oinarrian eskatzen dena.

2. Interesdunek zilegi dute egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztea behin-behineko zerrendaren aurka, **HAMAR EGUN BALIODUN**eko epean ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera, bai eta, kasua bada, egindako balizko akatsak zuzentzea ere.

Horretarako, telematikoki aurkezten ahalko dute eskabidea. Eskabidea Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa dago eskuragarri (<https://sede.parlamentodenavarra.es/opencms/>

[system/modules/sede/index?lang=eu/](https://sede.parlamentodenavarra.es/opencms/system/modules/sede/index?lang=eu/)), Administrazio-izapideak / Langile-deialdietarako eskabidea atalean. Modu presentzialean ere aurkezten ahalko da eskabidea Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Orokorrean, aurrez aurreko arretarako ordutegian (asteleheneretik ostegunera 09:00etatik 17:30era, eta ostiraletan 09:00etatik 14:00etara).

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias